

Depresioarekin lotutako hainbat gene identifikatu dira lehenengoz, mundu osoko populazioetan



Depresioaren genetika aztertu dute, europar jatorria ez duten populazioetan. ARG.: Darryl Leja, NHGRI/Jabego Publikoa.

Dibertsitate genetikoaren ikuspegitik inoizko meta-analisi zabalena egin dute, depresioaren arriskuarekin lotutako geneak identifikatzeko. Horri esker, aurrez ezagutzen ez zituzten 700 aldaera eta 300 gene inguru aurkitu dituzte. Hain zuzen, depresioaren genetika argitzeko egin diren ikerketa gehienak jatorri europarra duen populazioan egin dira. Horrenbestez, beste etnia batzuetan osasun-diskriminazioa eragiteko arriskua dago; adibidez, litekeena da haientzat ez izatea egokiak orain arte genetikan oinarrituta garatu diren terapia batzuk.

Identifikatu dituzten aldaera genetikoak garunaren eremu askotako neuroni lotuta daude; tartean, badira emozio-kontrolarekin zerikusia dutenak. Horrekin batera, tratamenduetarako iturri berriak proposatu dituzte. Esaterako, lehenik dauden bi botika, pregabalina (min kronikoaren kontrakoa) eta modafinila (narkolepsiaren kontrakoa), depresioa tratatzeko bideratu daitezkeela iradoki dute.

Azkenik, aldakortasun genetikoaren zenbaterainokoa den eta zer eragin duen ikusita, nabarmendu dute ikerketa gehiago egin behar direla jatorri europarra ez duten populazio-taldeetan. ●

Dibertsitate genetikoak murriztu egin da 600 espezie bakoari gehiagotan, azken 30 urteetan

Azken 30 urteotako ikerketen meta-analisi zabal batek agerian jarri du espezie gehienak biodibertsitate genetikoak galtzen ari direla; bereziki, ugaztunak eta hegaztiak. Ekosistema lurtar eta itsasartarako era guztietako 628 espezie aztertu dituzte: animaliak, landareak, onddoak eta kromistak; alegia, guztiak, bakterioak eta arkeoak izan ezik. Espezieen bi hereni eragiten die galerak; tartean, badira kalterik nabaritzen ez zitzaizkien espezieak ere.

Dibertsitate genetikoak oso lotuta dago egokitzeko ahalmenarekin; adibidez, gaixotasun baten ageraldia gainditzeko, edo klima-aldaketa baten ondotik bizirauteko. Horrenbestez, emaitza oso da kezkarria, ikertzaileen esanean.

Jakina da giza jarduerak (habitata sunsitzekoak, poluzioak...) espezie batzuk desagerrarazi dituztela, eta beste batzuk desagertzeko arriskuan jarri dituztela. Ikerketa honek frogatzen du galera ez dela espezie-kopuruan bakarrik gertatzen, baizik eta espezie bakoitzaren dibertsitate genetikoan ere bai.



Bereziki ugaztunetan eta hegaztietan ari da galtzen dibertsitate genetikoak. Hori da, esaterako, Zeelanda Berriko kakapuaren kasua (*Strigops habroptila*). ARG.: Zeelanda Berriko Kontserbazio Departamentua.

Bestalde, ikertzaileek berretsi dute kontserbazio-neurriek eragin onuragarria dutela. Hortaz, dei egin dute kontserbazio-estrategiak bultzatzeko. ●